

ERANSKINA

ZIOEN AZALPENA

Egungo egoera kontuan hartuta, herritarrek erosketak azalera handietan edo online merkataritzaren bidez egiteko joera gero eta handiagoa dute, eta beraz korporazio handiak dira kontsumo-ohitura berri horien onuradun.

Horrek herriko saltoki txikien egoera okertzen du, eta kasu askotan zailtasunak dituzte errealitate berri horretan bizirauteko.

Tokiko ostalaritzari dagokionez, antzeko fenomenoak gertatzen da; izan ere, gero eta ohitura handiagoa dago hirietara joateko jatera edo zerbait hartzera, eta herriko tabernak eta jatetxeak alde batera uzten dira, neurri batean.

Zamudioko Udalaren asmoa da udalerriko establezimenduetan kontsumoa bultzatuko duten neurriak garatzea, tokiko ekonomia suspertzen laguntzeko eta Zamudioko saltokien eta ostalaritzaren egoera hobetzeko.

1. Oinarriak eta deialdia. Aplikatzekoa den araudia

Oinarri eta deialdi hauek, oro har, honako hauetan xedatutakoaren arabera arautuko dira: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (aurrerantzean, DLO) eta hura garatzeko araudia, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (aurrerantzean, DLOA), Zamudioko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra eta 2025erako udal-aurrekontua gauzatzeko arauak. Horiek osatze aldera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta aplikagarria izan daitekeen beste edozein arau-xedapenetan ere oinarrituko da.

Dirulaguntza hauen kudeaketan publizitate, lehia, gardentasun, objektibotasun, berdintasun eta bereizketarik ezaren printzipioak zainduko dira, baita helburuak lortzeko eraginkortasuna eta baliabide publikoak esleitu eta erabiltzean efizientzia printzipioak ere.

2. Oinarri arautzaileen eta deialdi honen xedea

Oinarri hauen eta deialdi honen xedea da Zamudion ondasunak eta zerbitzuak erosteko bonuen dirulaguntzen baldintzak arautzea.

3. Laguntzen zenbatekoa eta aurrekontu-kreditua

Dirulaguntza hauek ematera bideratutako kopurua, guztira, 45.000,00 eurokoa izango da gehienez, indarrean dagoen udal-aurrekontuari dagokionez, 4314-48004 aurrekontu-aplikazioaren kargura («Merkataritza eta ostalaritza sustatzeko dirulaguntza»). Udalaren gehieneko ekarpena 45.000,00 eurokoa izango da, eta gainerako zenbatekoa onuradunek berek ordainduko dute bonua erostean.

Bi bonu-lerro ezarriko dira: komertzio-bonua (22.500 euro bideratuko dira gehienez) eta ostalaritza-bonua (22.500 euro bideratuko dira gehienez).

4. Onuradunak eta betekizunak

Laguntza hauen onuradun izango dira 16 urtetik gorako pertsona fisikoak, baldin eta, deialdira atxikitako erakunde bezero diren aldetik, erakunde horietan beren esku jarritako erosketa-bonuak erabiltzen badituzte.

5. Eskabideak aurkezteko eta ordaintzeko modua

Herritarrek AdiZamudio udal-aplikazio mugikorraren bidez edo udalaren webgunean eskuratu ahal izango dituzte bonuak. Udalak laguntza emango die bonuak aipatutako bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonen.

Bonua bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeko, ordainketa banku-txartelaren bidez egin beharko da. Ordainketa banku-txartel bidez egin ezin duten pertsonak, eskuratu beharreko bonu bakoitzeko, diru-sartze edo banku-transferentzia bat egin ahal izango dute udalaren banku-kontuan: ES85 2095 0083 9432 0060 2892. Ondoren, ordainagiria aurkeztu beharko dute, eta udalean bonua erosteko eskaera egin aurrez aurre.

Egin beharrekoa udalaren webgunean, AdiZamudio aplikazioan eta udalerriko informazio-paneletan zehaztuko da.

Bonua eskuratzeko unean, eskatzaileak klik egin beharko du, edo, aurrez aurreko eskaeraren kasuan, sinatu beharko du, dirulaguntza publikoak jasotzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena, bai eta oinarri eta deialdi hauetan ezarritako baldintzak onartzen direla ere.

6. Diruz lagun daitekeen jarduera

Zamudioko udalerriko merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduetan kanpaina hauei atxikitako ondasunak eta zerbitzuak erostea, bonuaren zenbatekoa ordainduta (herritarren txartelaren saldoan) eta gero establezimenduan zordunduta.

Komertzio-bonuak txikizkako salmentako establezimenduetan eta zerbitzuetan ondasunak erosteko dira, loteriarekin eta ausazko jokoarekin lotutako komertzioak izan ezik. Ostalaritza-bonuak kafetegietan, tabernetan, jatetxeetan eta ostatu-establezimenduetan ondasunak eta zerbitzuak erosteko dira.

Bonuaren kontsumo partziala edo osoa jasotzeko, udalak Zamudio Stores aplikazioa jarri du atxikitako establezimenduen eskura, zeina iOS eta Android plataformetan eskuragarri baitago. Establezimendu bakoitzari erabiltzaile eta gako bana emango zaizkio, aplikazio mugikor horretan identifikatzeko.

Bonu bakoitzak 30 euroko balioa izango du, eta onuradun bakoitzak 15 euroko ordainketa egin beharko du 15 euroko hobaria lortzeko; beraz, 15 euroko ekarpena eginez, 30 euroko balioa duten produktuak erosi ahal izango ditu. Zenbateko guztiak BEZ barne hartzen dira.

7. Kanpainaren ezaugarriak

7.1. 3.000 bonu jaulkiko dira, bakoitza 15 eurokoa, eta 30 euroko erosketa-balioa izango dute. Zamudion erroldatutako 16 urtetik gorakoentzat da. 1.500 bonu komertzio-bonuen kanpainarako izango dira, eta beste 1.500 bonuak ostalaritza-bonuen kanpainarako. Kanpainetako batean bonu gehiegi badaude eta beste kanpainan bonuak falta badira, bonuak kanpaina batetik bestera eskualdatu ahal izango dira.

7.2. 30 euroko bonuak izango dira, eta kanpainari aldeztu aurretik atxikitako Zamudioko establezimenduetan bakarrik kontsumitu ahal izango dira.

7.3. Pertsona bakoitzeko, gehienez, 2 bonu eskuratu ahaliko dira. Modalitate bakoitzeko bat. Modalitatearen bateko bonuak agortu badira eta beste modalitatekoak oraindik agortu ez badira, itxarote-zerrenda bat ezarri ahal izango da. Epea amaitzean bonuak gelditzen badira, modalitatea aldatu eta itxarote-zerrendakoei esleitu ahal izango zaizkie, izena emandako hurrenkeran.

7.4. Bonuak ezin dira eskudirutan trukatu, eta ez da inolaz ere bonu horren zenbatekoa itzuliko.

7.5. Bonuak ezin direnez eskudiruagatik trukatu eta horren zenbatekoa ez denez inolaz ere itzuliko, produktua itzultzen bada, saltokian edo ostalaritzan bertan gastatu beharreko erosketaren zenbatekoaren balioa izango duen txartel bat jaulki beharko du establezimenduak.

7.6. Bonuak 2025eko urriaren 15etik azaroaren 10era eskuratu ahal izango dira, edo bonuak amaitu arte.

- 7.7. 2025eko azaroaren 17tik aurrera hasi ahal izango da bonuaren zenbatekoa erabiltzen.
- 7.8. Bonua 2025eko abenduaren 10a baino lehen gastatu beharko da.
- 7.9. Aurreko puntuan adierazitako epean trukatu ez diren bonuak ezin izango dira erabili geroko kanpainetan.
- 7.10. Bonuak eskuratzen dituen herritar bakoitzeko, ezin izango da 10 euro baino gehiago gastatu bonu bakoitzeko saltoki eta ostalaritza-establezimendu bakoitzean.

8. Atxikitako erakundeak

- 8.1. Txikizkako saltokiak eta ostalaritza- eta ostatu-establezimenduak atxiki ahal izango dira, baldin eta salmenta-puntua Zamudion badute.

Baldintza hori betetzen dela ofizioz egiaztatuko du Zamudioko Udalak.

- 8.2. Atxikitako erakunde horiek erakunde laguntzaileztat hartuko dira, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 12. artikulua lehenean paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritik, eta aplikatzeko izango zaie lege-arau horretan dirulaguntzak kudeatzeko erakunde laguntzaileentzat aurreikusitako araubide juridikoa.

- 8.3. Zamudioko Udalak beretzat gordetzen du atxikitze-eskabidea hobeto baloratu ahal izateko beharrezkotzat jotzen duen beste edozein dokumentu eskatzeko eskubidea.

9. Atxikitako erakunde izaera izateko aurkeztu beharreko dokumentuak eta baldintzak

- 9.1. Aurreko artikuluan ezarritako betekizunaz gain, atxikitako erakundeek Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako betekizun guztiak bete beharko dituzte.

- 9.2. Eskabide-orri normalizatua aurkeztu beharko dute (I. eranskina), honako agiri hauekin batera:

— Pertsona edo erakunde eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duen agiriaren fotokopia (IFZ, eraketa-eskriturak, dagokion erregistroak emandako ziurtagiria, eta abar).

— Banku-kontua bere izenean duela egiaztatzen duen agiria (hirugarrenaren fitxa).

10. Atxikitze-eskabideak aurkezteko epea eta modua

- 10.1. Parte hartzeko interesa duten establezimenduak edozein unetan atxiki ahal izango dira bonu-kanpainak martxan dirauen bitartean. Udalak AdiZamudion, udalaren webgunean eta udalaren iragarki-taulan une oro eguneratuta edukiko du parte hartzen duten establezimenduen zerrenda.

- 10.2. Atxikipen-eskabideak I. eranskin gisa erantsi den eremuan egin beharko dira, eta udalak eredu hori telematikoki eman ahal izango die hala eskatzen duten pertsona guztiei.

Eskabideak Zamudioko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, edo bestela, telematikoki, gure egoitza elektronikoaren bidez (www.zamudio.eus).

Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan aurreikusitako moduan eta tokian ere aurkez daitezke.

- 10.3. Eskabide-orri normalizatuekin batera, pertsona edo erakunde eskatzaileek Udalak eskatzen dizkien dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko.

11. Eskabidea zuzentzea

Eskabide-orriak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat badu edo osagabeak badira, erakunde interesdunei bost egun balioduneko epea emango zaie antzemandako akatsak zuzentzeko. Epe hori igarotakoan egin ez badute, eskaeran atzera egin

dutela ulertuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako terminoen arabera emango den ebazpenaren ondoren.

12. Atxikitako erakundeen betebeharrak

Atxikitako erakundeen betebeharrak dira, erakunde laguntzaileentzat Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 15. artikuluan eta legearen araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan adierazitakoez gain, honako hauek ere:

12.1. Zamudioko Udalak banatzen dituen publizitate-materialak establezimenduko leku ikusgarri batean jaso eta jartzeko konpromisoa hartzea.

— Kanpainako partaide dela identifikatzeko kartela.

12.2. Bere establezimenduko bezero guztiak tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioen arabera tratatzea; horrela, gutxieneko erosketa-baldintzak eta oinarri hauetan eskatzen diren datuak betetzeko baldintzak betetzen dituzten interesdunei ez zaie bonua erabiltzeko eskubidea ez ezkutatuko, ez ukatuko.

12.3. Zamudioko Udalak egin ditzakeen egiaztapen-jarduerei men egitea. Era berean, erakunde onuradunek men egin beharko diete kontrol-organo eskudunek, naziokoek nahiz erkidegokoek, egin ditzaketen egiaztapen eta finantza-kontrolleko jarduera guztiei, eta aipatutako jardueren barruan eskatzen zaizkien guztiak aurkeztu beharko dituzte.

12.4. Beren jardueri dagokienez, gizonen eta emakumeen berdintasuna errespetatzea.

13. Bonuak

Bi bonu-lerro ezarri dira: batetik, komertzio-bonua (udalak gehienez 22.500 euro bideratuko ditu, saldutako bonuen arabera), eta, bestetik, ostalaritza-bonua (udalak gehienez ere 22.500 euro bideratuko ditu, saldutako bonuen arabera).

Bonuak eskaera ordenari jarraituta salduko dira denak saldu arte.

Komertzio-bonua Zamudioko udalerrian jendeari irekitako establezimendua duten txikizkako saltoki eta zerbitzuetan erabili ahalko da.

Ostalaritza-bonua Zamudioko udalerrian jendeari irekitako taberna, kafetegi, jatetxe edo ostatu-establezimenduetan erabili ahalko da.

Bonuak eskaera ordenari jarraituta salduko dira denak saldu arte.

Komertzioko eta ostalaritzako bonuak Zamudioko udalerrian jendeari irekitako establezimendua duten txikizkako zerbitzu, saltoki eta ostalaritzara bideratuko dira.

Bonu horietan, erosleak 15 euro ordaintzen ditu, eta udalak 15 euroko dirulaguntza ematen dio erosleari, aurreko paragrafoetan adierazitako establezimenduetan 30 euro gastatzeko.

Pertsona bakoitzak modalitate bakoitzeko bonu bana eskuratu ahal izango du gehienez; beraz, pertsona bakoitzeko gehieneko dirulaguntza 30 eurokoa izango da.

14. Jasotako bonuak trukatzeko prozedura

14.1. Zamudioko Udalak Peku aplikazioan —herritarren txartela eta kanpainak kudeatzeko erabiltzen da— egiaztatuko ditu atxikitako erakunde bakoitzak jasotako kopuruak.

14.2. Udalak beretzat gordetzen du atxikitako establezimenduek jasotako kopuruak justifikatzen dituzten fakturak edo tiketak eskatzeko ahalmena, bai ofizioz egiaztatzeko, bai iruzurkeria-susmoagatik.

14.3. Ez dira gastuen justifikazio gisa onartuko fakturazio-betebeharrak arautzen dituen erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuan eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituzten fakturak edo faktura sinplifikatuak.

Era berean, ez dira justifikazio-gastutzat hartuko PFEZaren (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) konturako atxikipenen arloko zerga-araudia betetzen ez duten fakturak. Dirulaguntzen justifikazioan bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoen erabilera arautzen duen uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduan ezarritakoaren arabera, faktura elektronikoak justifikazio-bide gisa erabiltzea onartuko da.

15. Deialdia izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna

15.1. Oinarri hauetan eta deialdi honetan araututako dirulaguntza tokiko gobernu-batzarraren erabaki bidez emango da. Prozedura bideratzea Udaleko Herritarren Atalari dagokio, zeinak, ofizioz, ebazpen-proposamena egiteko erabili behar diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak egingo baititu. Atal horri dagokio, bestalde, atxikitze-eskabideari buruzko ebaluazioa egitea. Ebaluazio horretan egiaztatu beharko da eskatzaileak atxikitako erakunde izaera lortzeko ezarritako baldintzak betetzen dituela eta aurkeztutako dokumentazioa osatuta dagoela eta zuzena dela.

15.2. Dirulaguntza lehia askearen araubidean emango da, eskabideak jaso diren hurrenkerari jarraituz, betiere deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen badira, eta eskabideak aurkezteko epea amaitu arte edo ezarritako aurrekontu-mugara iristeagatik bonuak agortu arte.

15.3. Balorazio- eta esleipen-irizpideak. Oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzea da esleitzeko irizpide bakarra.

15.4. Emakida-erabakian honako hau jasoko da: batetik, erakunde onuradunaren izaera duela eta, hala badagokio, erakundeak bete behar dituen baldintzak, betebeharrak eta zehaztaperen osagarriak bildu beharko ditu, eta, bestetik, gainerako eskabideak berariaz ezetsi direla, hala badagokio.

15.5. Erabakia ebazteko eta jakinarazteko epea, gehienez ere, hiru hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Amaiera emango dio administrazio-bideari, eta haren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo berean, edo zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, jurisdikzio hori arautzen duen legean aurreikusitako moduan eta epeetan.

16. Bateragarritasuna

Ematen den dirulaguntzaren zenbatekoak, bakarka hartuta edo beste administrazio publiko batzuen edo estatuko zein nazioarteko erakunde publiko edo pribatuen dirulaguntza, laguntza eta gainerako diru-sarrerekin batera, ez du inola ere gaindituko diruz lagundutako erosketaren kostua.

17. Arau-hausteak eta zigorrak

Zamudioko Udalaren Dirulaguntzen Emakida arautzen duen Udal Ordenantza Orokorraren IV. tituluaren xedatutakoa beteko da.

18. Dirulaguntzak itzultzea

18.1. Jasotako zenbatekoa itzultzeko, hala dagokionean, DLOren II. tituluaren, DLOren III. tituluaren eta Dirulaguntzen Emakida arautzen duen Udal Ordenantza Orokorraren 18. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

18.2. DLOren 36. artikuluan jasotako emakida-ebazpenaren baliogabetasun-arrazoiekin batera, jasotako zenbatekoak, osorik edo zati batean, itzuli beharko dira, eta, horrez gain, dirulaguntza ordaintzen den egunetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den arte dagokion berandutze-interesa eskatuko da, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan oro har aurreikusitako kasuetan.

18.3. Dirulaguntza itzultzeko prozedura hasteko eskubideari kalterik egin gabe, dirulaguntza jasotzeko betebeharrak betetzen ez baditu, pertsona onuradunak horren berri eman ahal izango dio organo kudeatzaileari sarrera-erregistroaren bidez, eta jasotako zenbatekoa borondatez itzuli ahal izango du. Horretarako, harremanetan jarri beharko da Kudeaketa Zerbitzuarekin, jarraitu beharreko izapideen ondorioetarako. Era berean, berandutze-interesak kalkulatuko dira, harik eta itzulketa gauzatzen den arte.

Oinarri arautzaileak eta deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera jarriko dira indarrean.